

Doluminez

1998ko urtea, urte garratza izan da RSBAP/EAEko adiskideentzat. Eta, zer esanik ez, *EGAN* aldizkaria egiten dugunontzat. Lehenengo Joxe Antonio Zabala tesorero jaunaren heriotza gertatu zitzaigun eta, ondoren, urriaren 3an Xabier Aizarna jaunarena.

Jakin bagenekien gaisotasun latz baten aurka burrukan ari zela, baina ez genuen uste hain bat-batean joango zitzaigunik.

Duela bost urte ezagutu genuen Xabier Aizarna hurbiletik. 1993ko urtea zen eta Adiskideen Elkarteko zenbait partaide Mexikon izan ginen bertan ospatzera zihoan Kongresu batean parte hartzera. Kongresuaz gain, bi aste zoragarri pasa genituen elkarrekin eta, egia esan, Xabier Aizarna ez zen oharkabe pasatzen zen gizasemea. Gazteagoak ginenok, nahiz gu ere ume garaitik aski urrundu garen, arretaz eta begirunez begiratzen genion berrari. Bagenekien zenbait kargu garrantzi handiko izanak zituela eta ondoren, bere nortasunak isurtzen zuen patxara, umore fina,

adiskidantza hurbilarekin lilurata pasa genituen egun haiek.

Geroztik, *EGAN*en edozein ekintza, hemen nahiz han izan, bertan egoten zen presente, adinez aurrera joateak ez baitzion ez bere euskaltasuna eta ez bere jakingura makaldu.

Bera hil ondoren hari buruz mintzatu gara sarri bere adintsuko jendearekin. Denek esaten digute bere burua osatzen jakin zuen gizaseme argi bat izan zela. Ume zelarik, "botones" bezala Banco de Vizcayan sartu eta, ordura arteko ohituraren aurka, "Director Regional" izatera iritsi baitzen. Postu hori ordura arte, odol urdinekoei, akzionista sendoen seme-alabei, abizen konkretuei soilik atxikia baitzegoen.

Haren izena eta ospari esker 1979ko apirilaren 22an Gipuzkoako Diputatu Nagusi izendatu zuten Arrasaten eta lan horretan egin zituen lau urte bankuko lana alde batera utziaz. Kontzertu Ekonomikoaren erredakzio komisioan egotea egokitu zitzaion. Bigarren legealdian, Di-

putatu Nagusi izatea utzi eta Gipuzkoako Lege Biltzarreko Lehendakari izendatu zuten. 1985. urtean EAJren hausturan, EAko partaide izan zen eta alderdi honetako Senadore kargua bete zuen.

Asko eta asko dira Xabier Aizarnak egindako merituak. Horregatik 1994ean "Donostiako Hiri-

tar Merituaren Domina" eman zioten. Gaur egun bere alaba Koruko Aizarnak, aitaren ildoari jarraituaz, Diputatuan Kultur Diputatu postua betetzen du.

Gure oroitzapenik samur eta iraunkorrena igortzen diogu bera-ri eta bere familiari *EGAN* egiten dugun partaideok.

Gillermo Etxeberria